

# txintxarri



# Lasarte-Oriak, bai!

**BLACK // FRIDAY**

**2MÓ 79€**  
MONOFOKALAK

ETA ASKOZ GEHIAGO...



R.P.S. 91/20

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

**MULTIÓPTICAS**  
kalitatea - konfiantza - diseinua

www.multiópticas.com   



Aurtengo kroseko sarituak, elkarrekin, oholta ganean sariak jaso ostean. TXINTXARRI

## Itxaronaldiak merezi izan du; ederra izan da itzulera

Patinatzaileak izan dira irteera marra zeharkatu duten lehen parte hartzaileak. Horien ostean, korrikalariak abiatu dira, eta ipar martxalariak gero. Guztiak gozatu dute lasterketaz eta horrek sortzen duen giroaz, eta lehiaketa guztietan bezala, garaileak ere izan ditu aurtengo edizioak

### Txintxarri

Lehen orduetik korrikalariak, patinatzaileak eta ipar martxa ibiltariak hartu zituzten Lasarte-Oriako erdiguneko kaleak. Guztira 835 parte hartzaileak eman zuten izena proban. Hipodromoan, Michelin kirol gune aldean, Kale Nagusian... azken beroketak egin eta Geltoki kaleko arkura joan ziren guztiak, txistularien doinua jarraikiz.

Irteera puntuan, omenaldi txikia egin zieten lasterketa sortu zuten Imanol Bardaji, Gabi Valin, Joxean Alberdi eta Roberto Rebe laukoteari. Ezustekoa jaso zuten horietako biek; Kukukako dantzarien aurrean Miren Bardaji

eta Maitane Rebe alabak jarri baitziren eta herriko txistulariekin batera Ander Bardaji semea egon zen. Guztiak agurra eskaini zieten omendu eta parte hartzaileei.

Ostean, patinatzaileak ziztu bizian atera ziren. Lasterketariak pixka bat gehiago itxaron behar izan zuten; lehen ilaran ikusi genituen Jon Presa edo Raul Gomez Margallo herritarrak. Horiek ere irteera deia entzun eta erritmo bizian ekin zioten probari. Minutu batzuk geroago, ipar martxako ibiltariak Ostadar Ipar Martxaren Rosa Ormazabalek eta Gironako Cristina Borrask ezarritako erritmoa jarraituz arkuak zeharkatu zuten.

Lehia estua izan zen proba guztietan. Patinatzaileetan Ximon Villalobos herritarra eta Julen Urkizar Irristaka taldeko kideak ihesi atera ziren Euskotreneko biribilgunea baino lehen. Hala ere, Hipodromoan atzetik zetorren taldetxo batek harrapatu zituen eta azken metroetan ahalegin handia egin zuen herritarrak helmuga lehen igarotzeko. Bigarren Urkizar izan zen eta hirugarren postuan David Gonzalo iritsi zen. Emakume mailan, aldiz, hasieratik buru izan zen Amale Mugica donostiarra eta aldea ireki zuen Kale Nagusira iritsi baino lehen. Ederki mantendu zituen aurkariak atzean

## "Nire onena eman dut eta zortea izan dut"

CRISTINA BORRAS PATINATZAILE GARAILEA

### Txintxarri

Esperientzia oso ona izan da, beti bezala, Lasarte-Oriara etortzea plazera da. Anfitrioi ederrak dira Ostadar Ipar Martxa taldeko kideak.

Krosean parte hartzen dudun bigarren aldia da. Pandemia aurrekoa izan zen lehena eta berriz ere hona etorri eta parte hartzeko gogoak genuen. Pozik amaitu dut aurtun ere, batetik irabazle izan naizelako, eta, bestetik, lasarteoriatarrek egin diguten harreragatik.

Inguruaren esaten zidaten podiumera igo behar mintzela, eta lortu dut. Nire onena eman dut, ipar martxagatik, ni kide naizen klubarengatik,



Cristina Borrás. TXINTXARRI

Nordic Walking Girona, eta noski Lasarte-Oriako taldearengatik ere bai. Hortik aurrera dena ongi joan da, eta garaile izateko zortzea izan dut.

eta helmugara bakarrik iritsi zen. Marta Garciak eta Olatz Iparragirrek osatu zuten podiuma.

Azken luzean erabaki zen korrikalarien lehia. Lasterketa buru jarri zen Youness Blyamna eta atzetik izan zuen Ander Sagarzazu. Hipodromo aldean bat egin zuten eta elkarrekin iritsi ziren azken 100 metroetara. Azken esprinta eginez marokarrak jantzi zuen txapela. Hirugarren Xabier Lukin izan zen. Emakumeen mailan, Aratz Rodriguezek aurre

hartu zuen hasieratik eta bakarrik iritsi zen helmugara. LOKEko harrobian hezitako Irati Larrañaga usurbildarra bigarren izan zen eta podiumeko azken maila Maialen Gurrutxagak bete zuen. Ipar martxako ibiltarien artean azkarrena Gironako Cristina Borrás izan zen; gizonetan lehena, aldiz, Imanol Yanguas. Horiekin batera Maria Teresa Jimenez eta Manoli Zumeta herritarra zein Axire Baro eta Josep Xargayo izan ziren podiumean.

bertako - REKIN BAI!  
igogailuak | ascensores

DROTARIKO ZERBITZUA  
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA  
943 903 450

BIZKAIA  
946 523 935

ARABA  
945 712 822

NAFARROA  
848 870 917

www.bertako.eus

## "Ibilbidea ongi prestatuta etorri naiz; irabaztera"

XIMON VILLALOBOS PATINATZAILE GARAILEA

### Txintxarri

Parte hartu dudan lehen aldia izan da. Lasarteoriatarra naizen aldetik, aspaldidanik nuen bertan aritzeko gogoia, baina azkenengo edizioan eskua hautsia nuenez, ezin izan nuen. Irabazteko intentzioarekin etorri naiz. Prestatuta nuen zirkuitoa, ondo ikasia eta oso pozik nago egindako lanarekin; etxean irabaztea oso berezia da.

Ibilbideak baditu zailtasun batzuk. Ereku teknikoena Tajamar biribilgunera iristeko jaitsiera izan da. Dena den, arestian esan bezala, nik ibilbidea ondo ikasia nuenez, bertan atakea jotzea erabaki dugu taldekide



Ximon Villalobos. TXINTXARRI

batek eta biok eta oso ondo atera zaigu. Harrapatu gaituzte gero Zubietara heldu aurretik, baina egindakoarekin gustura amaitu dut proba.

## "Uste baino denbora hobea egin dut"

ARATZ RODRIGUEZ LASTERKARI GARAILEA

### Txintxarri

Federatu gisa aritu naiz urte luzez, eta eta otsailean bertatik pixkanaka-pixkanaka erretiratzeko erabakia hartu nuen. Horren ondorioz, ahalmen fisikoa galtzen ari naiz, eta etorri naiz, batez ere nire ahizparekin plan bat egin asmoz. Gertatzen da lehiaketetan aritu garenek lehiakortasuna barruan daramagula, eta, hori kontuan hartuta, uste baino denbora hobea egin dut. Gustura nago egindako lanarekin. Oso lasterketa alaia da, jende asko irteten da kalera animoak ematera eta giroa sekulakoa da. Zirkuitua gogorra da, ezin dut kontrakorik esan, baina



Aratz Rodriguez. TXINTXARRI

mimoz prestatutako kirol proba da. Oso pozik nago egindakoarekin, eta orain, txuleta eder bat jateko aitzakia bikaina dut.

## "Irabazle izatearekin amesten nuen; pozik nago"

YOUNESS BLYAMNA LASTERKARI GARAILEA



Youness Blyamna. TXINTXARRI

### Txintxarri

Asko prestatu naiz lasterketa honetara etortzeko, eta irabazle izatearekin amesten nuen, horretarako prestatu bainintzen. Oso pozik nago lortutakoarekin, dena aurreikusi bezain ondo joan da. Banekien ondo aritzeko aukerak nituela, Andaluzian eta Portugalen antzeko lasterketetan parte hartu baitut, eta hango emaitzak ikusita, banekien Lasarte-Orian ere lan ona egin nezakela. Kros hau beste zenbait lasterketa prestatzeko lagungarria zait, eta hemendik aurrera, orain arte gisa gogor entrenatzen jarraituko dut.

## "Horrelako lasterketak mantendu behar dira"

AMALE MUJICA PATINATZAILE GARAILEA

### Txintxarri

Lasterketa ondo joan da. Pixka bat exigentea da, azkarra, baina ondo moldatu naiz. Banekien

hala izango zela, aurretik parte hartu izan baitut. Irabazteko esperantzaz etorri naiz, baina gauzak ez direnez beti batek

nahi bezala ateratzen, ez nekien zer gertatuko zen.

Giroa ederra sortzen da krosaren aitzakiaz, ondo antolatuta dagoen kirol proba da eta pozik noa etxera. Gertu harrapatzen nau eta horrelako lasterketak aprobeztatu behar dira; inguruan ez daude horrelako asko, hortaz mantendu behar direla uste dut.



Amale Mujica. TXINTXARRI



## ETXEZARRETA HARATEGIA

Bertako okela • Urdaitegia • Eramateko janaria

25  LASARTE-ORIA BAI!!

Zorionak Ostadarreko antolatzaileei!  
eta aupa korrikalariak!!

Hipodromo Etorbidea, 2 • Tel. 943-36 13 79 / 610 44 15 44 • LASARTE-ORIA

# "Bizi artean gogoratuko dugu igandeko eguna"

**IMANOL BARDAJI ETA JOXEAN ALBERDI** KROSAREN SORTZAILLEETAKO BI Lasarte-Oria Bai! krosaren lehen hondar aleak jarri zituzten lau herritarrek omendu ditu antolakuntzak aurten. Haietako birekin elkartu da TXINTXARRI, bizitakoaz hitz egiteko

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Gaur egun oso errotuta dagoen Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia sortu zuten Imanol Bardaji, Joxean Alberdi, Roberto Rebe eta Gabi Valin herritarrek. 1996an egin zuten lehen aldiz, bilera eta lanordu ugariren ostean. Horregatik, aitortza hunkigarria jaso zuten urriaren 30ean, kirol proba horren 25. aldia hasi aurretik. Lauen izenean hitz egin dute Bardaji eta Alberdik TXINTXARRI-rekin, luze eta zabal: omenaldian bizitakoa, hastapenak eta beste gai asko izan dituzte mintzagai.

**Has gaitzen krosaren egunean jaso zenuten aitortzarekin. Nola bizitu zenuten une berezi hori?**

**Imanol Bardaji:** Hunkigarria eta eskertzekoa, bizi artean gogoratuko dugu igandeko eguna. Seme-alabek agurra dantzatu zutenekoa sorpresa ederra izan zen.

**Joxean Alberdi:** Beste konpromiso bat nuen igandean, eta ez nekien egon ahalko nuen edo ez, baina azkenean bai, eta eskerrak joan nintzela! Oso polita izan zen.

**Egin ditzagun ia hiru hamarkada atzera, krosaren sorrerara. Noiz hasi zineten antolaketa lanetan?**

**I. B.:** 1994an hasi ginen hizketan, baina gero hoztu egin zen kontua. Hurrengo urtean berrartu, eta lehen aldia 1996an antolatu genuen.



Ezker-eskuin: Bardaji, Alberdi, Rebe eta Valin, krosaren egunean. TXINTXARRI

**Sortzaile izan zinetenak elkar ezagutzen zenuten lehenagotik?**

**J. A.:** Garai horretan kuadrilla mordo bat elkartzen ginen korrika egiteko, igandero-igandero, Hipodromoan. Goiz horietako batean hasi nintzen hitz egiten Imanolekin [Bardaji], Robertorekin [Rebe]... 'Aizue, zergatik ez dugu lasterketa herrikoia bat antolatzen hemen, gure herrian?'. Beti izan naiz saltseroa horrelakoetarako.

**I. B.:** Lauak gara lasarteoriatarrak. Gabi [Valin] eta biok Ostadarren geunden ordurako. Gutako bakoitzak bere arlotik egin zituen ekarpenak krosa antolatu ahal izateko. Fortuna-rengana jotzea

erabaki genuen, Behobia-Donostia lasterketa antolatzen zuen elkartearengana. Izan ere, nork erakutsiko zigun horrelako kirol proba bat antolatzen haiek baino hobeto? Esperientziarik ez genuen, baina azkar ikasi genuen.

**Komeria asko izan zenituzten 1996ko krosa antolatzekoan?**

**I. B.:** Guretzat bakarrik ez, herri osoarentzat astindu ederra izan zen, gauza asko izan behar genituen kontrolpean, eta berria zen denontzat. Nire ustez, zailena baimenak lortzea eta lasterketaren egunean bidegurutzeak kontrolatzea zen. Autoen erabilera oso zabalduta dago eta jendeak

ez zuen pazientziarik; gaur egun, nire ustez, are gutxiago.

**Zer-nolako harrera egin zioten krosari lasarteoriatarrek?**

**J. A.:** Sekulakoa. Sariak-eta banatzen genituen, baina dirurik ez; hala ere, hasiera-hasieratik maila handiko korrikalariak etorri ziren. Bi aste geroago jokatzen den Behobia-Donostia prestatzeko test garrantzitsu bat izan da beti. **I. B.:** Propio erabaki genuen urriko azken igandean antolatzea. 1996an libre zegoen data hori, eta ez genuen sinesten; aprobetxatu egin genuen. Urteen poderioz, beste lasterketa batzuk egiten hasi dira gurearen egun berean.

**Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia kirol proba bat baino gehiago da?**

**I. B.:** Bai. Gaur egun asko entzuten ditugun 0 Kilometroa bezalako kontzeptuak hasieratik aldarrikatu izan ditugu, beti bultzatu izan dugulako herriko komertzio eta tabernetan kontsumitzea. Horrez gain, birziklapena sustatzeko akordio bat egin genuen San Marko mankomunitatearekin, eta Euskotrenekin beste bat, krosa egitera etortzen ziren lasterkarietren doan har zezaten.

**J. A.:** Niretzat izugarria izan zen desberdina zen horrenbeste jende elkartzea hasieratik, edozertan laguntzeko prest zeudenak. Hori ez da gertatzen normalean. Gainera, berezia da gure herriko krosa, herrikoia. Lehenengo urtean, ibilbidea prestatu genuen lasterketa herriko auzo guztietatik igarotzeko. Horrez gain, beti izan da egun osoko plan bat: kirola egin eta gero, elkarrekin bazkaldu eta horrelakoak egiteko.

**Antolatzailerik izan zinetenok korrika egin zenuten egun horretan?**

**J. A.:** Robertok eta nik, bai. Gogoan dut ilusio handiz atera nintzela, oraindik etxean gordetzen dudan

kamiseta bat soinean. Sekulakoa zen niretzat horrelako kros batean parte hartzea, nire herrian. Irabaztea nuen amets, *profeta en mi tierra* izatea, baina bai zera! Nibel askoko jendea etorri izan da beti.

**I. B.:** Bitxikeria bat kontatuko dizut. Bileretan beti galdetzen genion elkarri ea zenbat parte hartzaile etorriko ote ziren, 400-500 aurreikusitako genituen, baina badaezpada ere 700 dortsal eskatu. Lasterketaren egunean, beldurra ematen zidan Okendo plazara joate hutsak, hori zen jendetza! Azkenean 686 pertsonak eman zuten izena, hamalau dortsal basterik ez ziren soberan geratu. **Bost urte geroago hasi zineten haurrentzako krosa antolatzen.**

**I. B.:** Askok harritzen nau Korrika Festak. Aurten 800 gaztetxo, mila ere izatera iritsi gara... Lasarte-Orian horrenbestek izena ematea izugarria iruditzen zait. 1996tik esaten zigun jendeak umeentzat ere zerbait egiteko, lan asko eskatzen zuen, baina horrekin ere aurrera.

**Zenbat urtez antolatu zenuten krosa lekukoa eman aurretik?**

**I. B.:** Hamar urtez. Pentsa, oraingo taldeak hamabost daramatza, aipatzekoa da, aitortza guk jaso dugun arren.

**J. A.:** Boluntarioak ere oso garrantzitsuak dira, 25 edizioetan leku berean lan berbera egiten. Bila joan beharrean, haiek esan izan dute 'aizue, gu lanerako prest'.

**I. B.:** Eta noski, ezin gure familietaz ahaztu. Krosa antolatzen sartu genituen ordu horiek guztiak haiekin bizi gabe geratu dira. Gainera, behar genuen edozertan lagundu izan digute beti.

Irakurri elkarrizketa osoa  
[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atarian

"Euskarak lan esparruan bere tokia behar du. Horregatik Euskalaldian bost arigune sortuko ditugu".

Nerea Ortiz

HITZEZ EKITEKO GARAIA

EMAN IZENA!  
[euskalaldia.eus](http://euskalaldia.eus)



2022ko AZAROAREN 18tik  
ABENDUAREN 2ra

# Urteurren berezia, irudietan

## Giro ederrean lehiatu dira

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiak urteurren berezia ospatu du, 25.ena. Eguraldia lagun, musikak alaitu ditu herriko erdialdeko kaleak, goizetik. Partaideak animatzeko helburuz, herritarrek lepo bete dituzte errepide bazterrak. Helduen ostean, etxeko txiki eta gazteek ere egin dute lasterka, XX. Korrika Festan.



Ostadarren eta Gironako ipar martxa taldeak, beroketak egiten. TXINTXARRI



Azken bi urteetan ez bezala, Geltoki kaleko zuzengunea patinatzailez eta korrikalariz bete da. TXINTXARRI



Txistulariek herria esnatu dute euren doinu alaiekin. TXINTXARRI



Korrikalariek giro ederrean itxaron zuten, irten bitartean. TXINTXARRI



Kukuka dantzako kideak, Maitane Rebe eta Miren Bardaji aurrean direla, omendu eta parte hartzailei agurra dantzaten. TXINTXARRI

zerbitzu mistoak

# MAiTE

ESTETIKA ARETOA

- Manikura eta pedikura
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektrikoa
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pultsatuekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Solariuma
- Ehunen birsortzea eta giharren indartze makina

Uistin Kalea z/g • Tel. 943-37 08 45 • Lasarte-Oria

# Uraitz, s.l.

Igeltseritza Orokorra

 Zorionak Korrikalari guztiei!

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ BOTATAKO ARTELAZKIA) ETA S.A.T.E. SISTEMA
- GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU GEHIGARRIRIK GABE
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA DUTXA EXTRALAUARENGATIK EGUN BAKAR BATEAN

693 05 93 92 / 943-56 66 40 • [uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) • [www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)  
BULEGOA: Geltoki kalea 15, LASARTE-ORIA



Euskotreneko biribilgunean ihes egin dute Iristaka taldeko patinatzaileek. TXINTXARRI



Herritar ugari bildu dira Kale Nagusian. Irudian, bi ihesien atzetik zihon taldetxoa, Raul Gomez Margallo buru duela. TXINTXARRI



Cristina Borraskorrikalariaren eskoba taldea harrapatu du. TXINTXARRI



Kale Nagusian mina sentitu arren, aurrera egin eta helmugara iritsi da korrikalaria. TXINTXARRI



Hipodromoko bihurgunean ere herritar ugari bildu da animoak ematera. TXINTXARRI



Patinatzaileak -irudian, Amale Mugica- Hipodromotik igaro direnean ez zegoen ia ikuslerik. Minutuak pasa ahala gerturatu dira. TXINTXARRI



Ander Bardajik eta Maitane Rebek euren gurasoen 1 dortsalarekin egin dute lasterka. TXINTXARRI



Modalitate ezberdinetakoren lehen sailkatuak, helmugara iristen. Ezkerretik eskuinera, Ximon Villalobos, Amale Mugica, Youness Blyamna, Aratz Rodriguez eta Cristina Borraskorrikalariaren eskoba taldea harrapatu du. TXINTXARRI



Batzuek, esfortzuagatik, lurrean amaitu dute lasterketa; beste batzuek, aldiz, oinez. TXINTXARRI



Mota guztietako aldarrikapenak izan dira. Irudian, zortzikoteko Rebecka Garces eta Patxo Etxegia, Maratoialdiko Prestatu faseko kartela eskuan. TXINTXARRI



Laguntzaileen adarjotzeak ere sufritu dituzte korrikalarietako batzuek. TXINTXARRI



Gaztetxoek eman diote hasiera XX. Korrika Festari. TXINTXARRI



Lasarte-Oria Bai! 25. Herri Krosaren zein XX. Korrika Festaren irudiak QRa eskaneatuz ikusi ahalko dituzue, TXINTXARRI-ren webgunean



Oaintxe in deul txarangak dantzan jarri ditu herritarrak. TXINTXARRI



Ia 800 umek parte hartu dute aurtengo Korrika Festan. TXINTXARRI



Jalgune elkarteko lagun jatorrek eman zizkieten sariak korrikalari gaztetxoei. TXINTXARRI



eskatu saskiak  
eta eman hauspoa euskarari



urriak 22 - azaroak 10

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzzlea

Bat egiteko garaia da











Aterpea merkatarien elkarteko kideek eta udal ordezkariak Herriko Etxean aurkeztu dute kanpaina, berriki. TXINTXARRI

## 1.000 euroko saria, herrian erosteagatik

Eskuratu 1.000 euro kanpaina abiatuko du Aterpeak. Hilaren 7tik 19ra egitasmoarekin bat egiten duten komertzioetan erosketak egiten dituzten bezeroek 1.000 euroren zozketan parte hartuko dute. Irabazleak hiru ordu izango ditu diru kopuru hori xahutzeko

### Txintxarri

Eskuratu 1.000 euro kanpaina aurkeztu du berriki Aterpea merkatarien, ostalarien eta zerbitzu establezimenduen elkarteak. Herriko Etxean eman dute egitasmoaren berri. Hilaren 7an hasi eta 19ra arte izango dute herriko komertzioetako bezeroek kanpainan parte hartzeko aukera, eta, horretarako, egiten dituzten erosketak bakoitzeko papertxo bat bete beharko dute. Horiek kutxatxo batean sartuko dituzte denden jabeek, ondoren, zozketarako erabil ditzaten.

Merkatarien elkarteko kide diren establezimenduetan gastatzeko 10 euroko ehun erosketak txartela irabaziko ditu zozketaren garaileak. Horiek, ordea, hilaren 29an erabili beharko ditu, hiru ordutan, 17:00etatik 20:00etara. Merkatarien elkarteko ordezkariak zehaztu dute komertzio bakoitzean gutxienez hamar euroko gastua egin beharko duela, eta, asko jota, 100 euro xahutu ahalko dituela: "Horrela bermatzen dugu gutxienez hamar negozio izango direla kanpainaren onuradun". Bidean, nabarmendu dute

adibidez garaileak 28 euroko erosketak egiten badu, berak erabaki beharko duela hiru erosketak bonu erabili, edo bi xahutu eta zortzi euro jarri bere poltsikotik.

Zenbait erosketak bonuen truke opari txartelak jaso ahal izango ditu irabazleak, adibidez, ile-apaindegi eta estetika zentroetan erabili nahi baditu. Hilaren 29an hiru ordutan ez bailioke horiek erabiltzeko denborarik emango.

Herritarrek deitu dituzte kanpainarekin bat egin eta erosketak herriko komertzioetan egitera.

## Gurutzaldiko entrenamenduetan izena emateko azken egunak

Euskaraldia prestatzeko saio kolektiboak egingo dituzte Antonio Mercero gunean, hilaren 7tik 10era, arratsaldean

### Txintxarri

Hizkuntza ohiturak aldatzeak nork bere aldetik ahalegintzea eskatzen du, eta esfortzu horretan lagundu nahi dituzte herritarrek Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak

eta Ttakun Kultur Elkarteak. Horretarako, hizkuntza asertibitatea lantzeko saioak antolatu dituzte, Bea Egizabal eta Intza Alkain (GuruBaga eta GuruBaga) guru linguistikoak gidari izango dituztenak.

Antonio Mercero gunean aurrera eramango dituzte entrenamenduak, hilaren 7tik 10era, arratsaldean: 18:00etatik 19:00etara eta 19:00etatik 20:00etara.

Umore handiz, konplexu eta aurreiritziak alde batera utzi eta herritarrek euskahalduntzeko aholkuak emango dituzte. Formulario honetan izena eman behar dute herritarrek: <https://txintxarri.eus/lasarte-oria/1666959915103-euskotxitaketor-zaitzte-gurutzaldira>.

## UDAL HAUTESKUNDEAK 2023



TXINTXARRI

## Valdivia, PSE-EEren alkategaia

Agustin Valdivia Calvok bere burua aurkeztu du PSE-EEren alkategai izateko. Jakinarazi du iragan astean eman zela erabaki horren berri alderdikideei, eta horiek babestuta agertu da prentsaurrean. Jose Ignacio Asensio alderdi sozialistako idazkari nagusia ere ondoan izan du. Herriko Etxean egin du agerraldia. PSE-EEko alkategai izatea "ohore handia" dela nabarmendu du, eta, berretsi maizteko hauteskunderen ostean hasiko den legegaldi berrian ere herritarren interesak lehenesten jarraitu nahi duela. Uste du lan handia dagoela egiteko eta Lasarte-Oriak baduela etorkizuna, eta sozialistek badutela herriarentzat inbertsio garrantzitsu eta beharrezkoak barne hartzen dituen proiektu bat.



Intza Alkainek eta Bea Egizabalek gidatuko dituzte saioak. TXINTXARRI



# Eskuratu

Lasarte-Oria 2022

**1.000€eko saria**  
**Eta zuri tokatzen bazaizu?**  
Kontsumitu ezazu Lasarte-Orian  
azaroaren 7tik 19ra,  
eta parte har ezazu  
erosketa bonoen zozketan

# 1.000€

eta gastatu 3 ordutan

Kontsulta ezazu establezimendu parte-hartzaileen zerrenda

ALBA MODA	VENTANAS ALCAR	ORMAZABAL LORADENDA
ARKUPE TABERNA	MASAJISTA RAKEL	OSTEOPATÍA NOELIA CALERO
HERRIKO ETXEA	MERCERÍA ARITZA	FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA
BIDEO LAGUNAK	OIHANA ESTETIKA	ADMINISTRACIONES BARDAJI
NOGUES MODA	HIRU ALDETA TABERNA	VIÑA DEL MAR KAFETEGIA
MAYA LENTZERIA	PELUQUERÍA BEA	PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA
MERCERÍA OLMÍ	DULCE TENTACIÓN	ADMINISTRACION DE FINCAS MILLA
BIZKER RÓTULOS	AVENIDA TABERNA	PUERTAS Y VENTANAS ZURLAN
ÓPTICA LIZARRI	ZAPATERÍA ITURBE	IMAGINE JANTZI DENDA
AMA YOGA	CLÍNICA DENTAL ALDAZ	COCINAS, BAÑOS Y REFORMAS CLOVER
BAR LASARTE	OLA ENMARCACIÓN	PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA
BAR ALAI	ORBELA EKODENDA	CLÍNICA PODOLÓGICA AMAIA OLONDRIS
GESTORÍA BETELU	URRUZOLA MERTZERIA	SILVIA LUIS ARBIZU ADMÓN. DE FINCAS
NATURHOUSE	FERRETERÍA SUKOA	ZUBIETA MOTOR
ORUE BOTIKA	CARREFOUR EXPRESS	TXEMA VALLES - PUBLIBROCK
MERCERÍA MAUXA	FARMACIA ELI LASA	CENTRO DE MASAJE KIMA
HAUNE INTERIORISMO	CAFÉ-BAR BUENETXEA	KAIZEN MUEBLE Y DECORACIÓN
HALCÓN VIAJES	LOTERÍA IZAGUERRI+C	SORAYA GALLEGU MICROPIGMENTACIÓN
INMOBILIARIA RK	BERASATEGI KAFEAK	ELECTRICIDAD ARREGUI
EGUZKI TABERNA	GIMNASIO SAITO	LOGOPEDIA HITZ-KIRIBIL
ÓPTICA IRIGOYEN	PELUQUERÍA MARBELL	ARTESANÍA INÉS FLORES
MABEL MODA	PLAN B KAFETEGIA	NORTH TEAM NUTRIZIOA
BAR ORIA-TXIKI	BAR-CAFETERÍA BUS	ARAETA SAGARDOTEGIA
CALZADOS LEDER	DECO 75 TEXTIL HOGAR	MULTIOPTICAS LASARTE
PELUQUERÍA MANI'S	ADATS ORRAZTEGIA	SANTANA INFORMÁTICA
BOTE TATTOO	VENTANAS ISU LEIHOAK	PELUQUERÍA Y ESTÉTICA SPLENDOR
NAHIO ARROPA DENDA	TEJIDOS FERNÁNDEZ EHUNAK	



*Euskadi, auzolana, bien común*



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA  
DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO



**LASARTE-ORIA**  
UDALA - AYUNTAMIENTO



**LASARTE-ORIA**  
**TRATU ON BAT**  
UN BUEN TRATO



'Ave María' organo eta kantu emanaldiak eta Kalean taldeak Jalgin eman zuen kontzertuak itxi dute urriko agenda. TXINTXARRI

## Kultur ekitaldiz beteta dator azaroko agenda

Antzerkia, zinema, musika, sari banaketak, aurkezpen ekitaldiak... Denetarik izango du Lasarte-Oriako Udaleko Kultura sailak hilabete honetarako prestatu duen kultur egitarauak. Glu Glu konpainiaren 'Munduari itzulia 80 egunetan' lanak irekiko du agenda bihar, hilak 5

### Txintxarri

Kultur agenda oparoa prestatu du Lasarte-Oriako Udaleko Kultura sailak hilabete honetarako. Denetik izango du: antzerkia, zinema, musika, opera, sari banaketak, aurkezpen ekitaldiak, ipuin kontaketa... Hitzordu ugari dituzte aukeran herritarrek, bihurtatik hasita, hilaren 5etik: Glu Glu

konpainiak *Munduari itzulia 80 egunetan* lanaren emanaldia egingo du Manuel Lekuona Kultur Etxean, 17:00etan. Sarrerek 4 euro balio dute. Hori ez da antzezlan bakarria izango, hilaren 12an *Album* ekarriko baitu kultur etxera Formol Laborategiak, 20:00etan. Intza Alkain herritarra da antzezleeta bat. Sarrerek 6 euro balio dute.

Hilaren 18an hasiko den Euskaraldiaren aurkezpen jaialdia eta Emakumeen Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira antolatutako jarduerak ere aurrera eramango dituzte, besteak beste.

Gainerako hitzorduak [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) webgunean zein aldizkari honen 15. orrian (paperean, hilaren 18ra artekoak jaso ditugu oraingoz) kontsulta ditzakezue.



TXINTXARRI

## Poztu, amorrarazi eta kezkatzeko arrazoiak

Lasarte-Oriako Sarek urriko azken ostirala aurrera eramanean hilaren 28an, hilabete horrek emandakoaren irakurketa egiteko. Talde horretako kide Ixiar Arteagak laburbildu zuenez, poztu, amorrarazi eta kezkatzeko arrazoiak izan dituzte, baita aurrera begiratzeko ere. Poztekoen artean, Ion Kepa Parot eta Jakes Esnal etxean ari direla euren zigorrak betetzen, 33 urtez espetxean egon ostean. Halaber, gogoratu zuen Ibon Fernandez Iradi herritarra Martuteneko espetxera gerturatu dutela berriki.

Amorrua eragin dietenen artean, Xabier Atristaini gertatutakoa: Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarren gradua kendu eta berriz espetxeratu dute. Aurrera begiratzeko, berriz, urriaren 8an Illunben egindako jaialdia: aurreikusitakoa "bete" eta emaitzarekin "oso gustura" daude. Aurreratu dute abenduaren 16rako ekintza bat prestatzen ari direla, eta datorren urteko Azken Ostiralei forma emateko bilera bat egingo dutela hilaren 10ean, ostegun, 19:00etan Xirimiri elkartearen.



NEURE KABUZ

JULEN BASTERRA

## Zer pentsa, hura izan

Jaten duguna omen garelako asko entzun den esaldia izan da azken urteotan. Zer jan hura izan, nahiago bada. Honela, esango nuke produktore zein kontsumitzaileen kontzientzia esnatu egin dela jaten dugun horren jatorria, konposizioa eta ekoizpen modua ezagutzeko garaian. Selektiboagoak eta exigenteagoak bihurtu gara gure ekintzen ondorioek guregan zein ingurugiroan duten eraginaz jakitunago garelako. Eta duela ez gutxi arte baina anitzagoak gara orain: orojaleak, haragijale amorratuak, barazkijale zorrotzak, barazkijale malguak, gordinjaleak, beganoak, esne-arrautz-barazkijaleak, km0jaleak, gourmetak, astero baserriko otarra etxera dararamaten militanteak, azkartasunaren dinamiketan jana etxera ekar diezaioten Just Eat, Glovo edota Amazon erabiltzen dutenak, euren jakiak etxeratzen hasi diren baratzezainak...

Gorputza garelako argi asko dakigu ikusi, sentitu eta pairatzen dugun zerbait delako. Hura zaintzea eta elikatzea errazagoa da orain, urte batzuk atzera baina informazioa eta aukera gehiago ditugulako. Ados, baina, gorputzarekin batera, gorputza baina sotilagoa den zerbait gehiago bagarela ere ohartzen hasiak gara azkenean. Berriki gizarteratu den gorputz-gogamen binomioaz hitz egiten ari gara jada, euskaraz, agian, terminologia eta informazioa eguneratzen ari den arren. Funtsean, aspaldiko kontu bat da, modu desberdinean teorizatu eta ulertu dena: Platonen garaitik, Descartes-etik aurrera, Ekialdeko korranteetara (Ayurveda, Budhismoa, Daoismoa) igaroz... Denek gorputz-gogamen auziaz dihardute.

Horren haritik, norbere buruaren ezagutzan eta zaintzan diharduen gizaki orok gogamenean jarri behar izan du azkenean arreta. Euskaraz, agian, gaia ez dugu gehiegi gizarteratu. Hortaz, gogamena diodanean gaztelaniatzko *mente* hitza erabiltzen ari naizela adierazi nahi diot irakurleari. Gogamenak, laburki esanda, pentsamenduak, pertzepzioak, irudipenak, sentsazioak...kudeatzen ditu. Eta azken buruan, gogamenaren kudeatzaileak gu geu gara.

Hona heldu garelarik, gaurko gogoetaren mamia hauxe da: gorputzari zer jan ematen diogun bezain garrantzitsua dela gogamenaren elikadura, bien arteko elkarrizketa bat baita gure existentzia.

Hain zuzen ere, zer energietara konektatzen garen, zer ikusten dugun, zer irakurtzen, zer nolako musika entzuten dugun, norekin konpartitzen dugun gure denbora, nolako den gure barne bakarriketa... Hori guztia eta gehiago da gogamenaren elikadura eta bagoaz hemen ere pixkanaka kontzientzia esnarazten. Gogamenaz hitz egitea zailagoa da, ikusezinari buruz mintzo garelako. Alabaina, epe luzera begira, ikusezinean lan egiteak ikus daitekeen horretan lan egiteak baino onura gehiago ekartzen dizkigula garbi daukat. Zuhaitza dugu irakasle xumea: bere egungo garaiera baina sakonagoak diren sustraiekin hasi zuten lanari esker lortzen du ikusgarria den gaurko bizimodu oparoa.

Konklusio gisa, azken ideia batzuk: eman diezaiogula garrantzi gehiago gogamenaren esparru sotilari, etorkizuneko zuhaitzaren gure sustraiei; ez gaitzala zoriak, norabide gabe, alde batetik bestera eramane; eta jakiekin selektiboak eta exigenteak bihurtu garen modu berean, izan gaitzela, geure buruari zor diogun maitasun propioagatik, gogamenaren erreinura datorkigunarekiko ere selektibo bezain zorrotzak. Nolako sustrai, halako zuhaitz garelako edo, beste modu batera esanda, zer pentsa, hura izan.

# Ostadar Atletismoko kideak lehian hasi dira

Ostadar Atletismoko Aiala Ramosek Euskadiko Selektzioarekin parte hartu du 16 urtez azpiko Espainiako Federazio Autonomikoen Txapelketan. Hilaren 6an, aldiz, taldeko txikiek 66. Nazioarteko krosean parte hartuko dute; ez dira herritar bakarrak izango

## Txintxarri

Ostadar Atletismoa saileko kideek pixkanaka lehiari ekingo diote. Taldeko Aiala Ramos herritarra izan da lehena. Urriaren 9an, Euskadiko Selektzioarekin lehiatu zen Iruñean antolatu zen 16 urtez azpiko Espainiako Federazio Autonomikoen Txapelketan. Talde urdin-beltzeko kideak xabalina jaurtiketa probari egin zion aurre. Herritarrek bigarren saiakeran 28,47 metrotara bidali zuen xabalina eta 9. postuan amaitu zuen lehia. Marka horri esker, bere marka pertsonala ondu du Ostadarreko atletak.



Aiala Ramos atleta. OSTADAR ATLETISMOA

## Nazioarteko krosa

Lasarte-Oria Bai! Herri Krosaren ostean, hitzordu garrantzitsua izango dute Ostadar Atletismoa saileko kideek zein herriko hainbat atletek, Donostiako 66. Nazioarteko Krosa.

Hilaren 6an, igandearekin, maila ezberdinetako korrikalariak -krosean debuta

egiten dutenetatik masterretara-bilduko dira Donostiako Hipodromoan. Atletismo egokituko partaideak ere izango direla aurreratu dute antolatzaileek.

10:10etik 14:00etara, hamar lasterketa izango dira. Master

eta atletismo egokituko probak emango dio hasiera; senior eta 23 urtez azpiko mailako lehiaketarekin amaituko da 13:05ean.

Lasterketa federatuetan, gainera, Euskadiko banakako zein klubetako txapelketak izango dira lehian. Beraz, euskal atleta eta nazioarteko atleta talde ederra izango da.

Lasarte-Oriako ordezkari zari dagokionez, Ostadar Atletismoa sailak hogeit bat gaztetxo aurkeztuko ditu krosera. Benjamin (600 m.), alebin (850 m.) eta infantil mailan (1.600 m.) arituko dira. 20 urtez azpiko proban Zumeatarra taldeko Aimar Sukunza eta Unai G. Somovilla herritarrek parte hartuko dute; 3.600 metroko ibilbidea egingo dute. Senior mailan ere izango da lehiakiderik, Lasarte-Oria Bai! krosa laugarren amaitu zuen Jon Presa. Maila horretako parte hartzaileek 8.850 metro egingo dituzte.

# Aitor Manso herritarra bigarren izan da Jaizkibelen

Mendi igoeren txapelketan buru da herritarra eta garailea erabakitze proba bakarra geratzen da

## Txintxarri

Euskadiko Mendi Igoeren denboraldiko azken probak jokatzeko ari dira. Urriaren 23an, Urrakira igoera jokatu zen Azpeitian eta Aitor Manso zein Alejandro Lopez herritarrek izan ziren lehian. Manso podiumera igo zen bitan.

Lehen orduetan euria egin zuen eta parte hartzaileek ur gurpilak muntatu behar izan zituzten. Beroari eta haizeari esker, errepidea lehortzen joan zen. Alabaina, itzaleko eremuetan hezetasuna nabari zen entrenamenduan eta lehen saio kronometratuan. Hala



Manso (zuriz), podiumean. RUBEN MONTORI

ere, Joseba Iraola bere Norma NP01 ibilgailuan nagusi izan zen igoera ofizialetan. Lehenengoan 02:52,148 behar izan zituen ibilbidea egiteko eta bigarrenetan, aldiz, 02:49,366ko marka egin zuen.

Podiumeko bigarren mailan izan zen Aitor Manso herritarra, BRC B49 ibilgailuarekin. Gidari gazteak entrenamendutik (03.45,757) lehen saiakerara ederki ondu zuen denbora (03.15,444) eta bigarren aukeran ere ez zuen hutsik egin; 03.07,426ean geratu zuen kronoa. Sailkapen orokorreko bigarren postuaz gain, 8. mailako podiumeko gorenera igo zen lasarteoriatarra.

Jaizkibel taldeko bi gidariak txapelketako lehen postuetan daude; Manso buru da eta Iraola, aldiz, bigarren. Garailea zehazteko proba bakarra geratzen da, Sollubeko igoera. Hilaren 19an lehiatuko da eta bertan lan ederra egingez gero, txapela jantzi dezake herritarrek.

Mansoz gain, Alejandro Lopez bere BMW 316i turismoa gidatzen izan zen Urrakin eta hirugarren mailako hirugarren postuan sailkatu zen, 03.31,217ko denborari esker.



Alebin mailako Buruntzaldea IKTKo igerilariak, ligako lehen proban. BURUNTZALDEA IKT

# Alebin lehen postuetan hasi dute lehiaketan denboraldia

Hilaren 5ean Neguko Ligako bigarren jardunaldia lehiatuko dute Maialen Chourraut kiroldegian

## Txintxarri

Alebin Liga urriaren 29an, larunbatarekin hasi zen. Buruntzaldea IKTKo sei kidek parte hartu zuten Hernaniko kiroldegian egin zen lehen jardunaldian: Kimetz de la Cruz, Ohian Matute, Itxaso Iparragirre, Iñaki Garcia, Ibon Elola eta Mario Amantegi.

Guztiek 200 m. libre eta 100 m. bular probei aurre egin behar izan zieten eta ederki jardun ziren; lehen postuetan sailkatu ziren denak.

Hurrengo hitzordua hilaren 19an izango dute, Ordizian. Orduan, banaka 200 m. lau estiloak eta 100 m. libre probak

lehiatuko dituzte. Erreleboetako saioa ere izango da, mutilen 4x200 m. estilo librean.

## Neguko Liga igerilekuan

Bestalde, igeriketa taldeko infantil, junior eta absolutuek denboraldiko bigarren hitzordua izango dute hilaren 5ean, larunbatarekin, Maialen Chourraut Kiroldegian, 15:00etan.

Neguko Ligako jardunaldia lehiatuko da Lasarte-Oriako igerilekuan eta Buruntzaldea IKTKo kideez gain, Konporta, Ordizia KE, Hernani KE, CD Fortuna, Tolosaldea Usabal IKT eta Igartza IKE taldeetako partaideak izango dira igerian.



TXINTXARRI

# Zorte oneko bolada amaitu da

Ongi hasi du Liga Ostadar SKTren infantil F-8 taldeak. Lehen bi jardunaldietan garaipena erdietsi zuen; Usurbil FT Bren aurka 1-5 irabazi zuen eta 6-1 menderatu zuen Lizeotarrak B taldea. Zorte ona amaitu da, ordea. Urriaren 29an, denboraldiko lehen partida galdu zuen. Martutene KE A izan zuten aurrez aurre talde urdin-beltzeko kideek. Ederki borrokatu arren, 2-5 amaitu zen norgehiagoka.

## ZORION AGURRAK



## Maite eta Manolo

Zorionak zuen urrezko ezteietan!! Egun ederra igaro dezazuela espero dut. Muxu handi bat zuen semearen partetik.



## Javi

Aitatxo badakizu oso familia originala garena beraz zorionak zure ez urtebetetzean!!!! Muxu potolo pila etxeko lauan partez.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

## Internet

- txintxarri.eus/zorionagurra.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

## Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu zorion agurra.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 4	DE URUE	<b>EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00</b>
LARUNBATA, 5	ACHA-ORBEA	DE URUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 6	ACHA-ORBEA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 7	DE MIGUEL	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 8	LASA	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 9	GIL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 10	ACHA-ORBEA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00**  
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen  
Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) webgunean eskuragarri.

## TELEFONOAK

<b>UDALAREN TELEFONOAK:</b>	<b>LARRIALDIKO TELEFONOAK:</b>
ERREGISTROA: 943-37 16 29	OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84	DYA: 943-46 46 22
KIROLEDGIA: 943-37 61 82	GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81	UDALTZAINAK: 943-36 24 42
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79	ERTZAINAZA: 943-53 88 40
KIUB: 943-36 16 05	SOS DEIAK: 112
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21	
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33	

## ESKELA

ESKELAK JARTZEKO

**TEL: 943-37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz  
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

## PARTEKATU

Gela bat alokatzen dut Lasarte-Orian, erdialdean, partekatutako etxe batean. Harremanetarako zenbakia: 666 32 05 20.

## LANA

## ESKAINITZA

Etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da Lasarten, goizez asteen hiru egunetan aritzeko (astelehen, asteazken eta ostiralean). Egun bakoitzeko 2 ordu eta erdiko lana litzateke. Harremanetarako

zenbakia: 609 556 338 eta 943-10 16 27.

15 urteko neska bati euskara klase partikularrik emateko pertsona bat behar da. Harremanetarako zenbakia, 631 57 15 40 (Arratsaldez deitu).

## ESKARIA

Kurtsoan zehar haurrak arratsalde zaintzeko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia, 695 18 41 79.

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketara... Esperientzia handikoa

eta profesionala garbiketara. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

## SALEROSKETA

## SALDU

Su egurra saltzen da (haritz), tximinirako, ekonomikarako... Harremanetarako zenbakia: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

## BESTELAKOAK

## HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsaldez. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

## TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

## TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)  
646 82 44 66

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

## Administrataria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

## Publizitatea

Iratzi Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maitane Rebe, Julen Basterra,  
Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

## Banatzaileak:

Lide Hidalgo, Uxue Odriozola,  
Julene Iraola, Egoitz Epelde,  
Endika Meriban, Gorka Morales,  
Sergio Hernandez, Ander Hazas  
eta Iñigo Garcia.

## Informatika zerbitzua

IZT Informatika.

## PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

## EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.500 ale

## BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## LARUNBATA 5

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Glu Glu konpainiak *Munduari itzulia 80 egunetan* antzeulanaren emanaldia egingo du. Sarrerek 4 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Jose Luis Elespe *Pelex* artistaren *Sentimenduak eta emozioak* erakusketaren inaugurazio ekitaldia egingo dute. Esposizio hori abenduaren 10era arte egongo da irekita. Siglo 20 taberna, 20:00etan.

## IGANDEA 6

### LASARTE-ORIA Zinema

*Los buscamundos* filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Zinema

*Argentina 1985* filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute. Kultur etxea, 19:30etan.

## ASTEAZKENA 9

### LASARTE-ORIA Opera

Opera emanaldia antolatu dute Danok Kide elkarteak eta udalak, elkarlanean. *Madame Butterfly* obra ikusteko sarrerek 7,5 eta 9 euro artean balio dute.



FORMOL LABORATEGIA

**LASARTE-ORIA Antzerkia.** Formol Laborategia konpainiak *Album* lanaren emanaldia egingo du. Intza Alkain lasarteoriatarra da antzezleetako bat. Sarrerek salgai daude honezko Kutxabank Sarrerek atarian, esteka honetan: [https://tickets.kutxabank.es/#/eu/detalle/MLFORMOL@Janto\\_KB/Lekuona](https://tickets.kutxabank.es/#/eu/detalle/MLFORMOL@Janto_KB/Lekuona). Kultur etxeko leihatilan ere eskura ditzakete herritarrek, 6 eurotan. Manuel Lekuona Kultur Etxea, hilak 12 (larunbata), 20:00etan.

Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioa, 19:00etan.

## OSTIRALA 11

### LASARTE-ORIA Musika

Victor Vega akordeoi jotzaileak eta Jesus Nuñez tronpetak jotzaileak osatutako Sut Vie Duo taldeak emanaldia egingo du, XVII. Musika Topaketen barruan. Sarrera, doan. Ama Brigitaren komentua, 19:30etan.

### LASARTE-ORIA Zinema

Hilabeteko lehen zineforuma egingo du Okendo Zinema Taldeak: *Black is Beltza II: Ainhoa* filma proiektatuko du. Sarrerek 4 euro balio dute. Kultur etxea, 22:00etan.

## LARUNBATA 12

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Formol Laborategia konpainiak *Album* antzeulanaren emanaldia

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**'Los buscamundos'**  
Igandea 6: 17:00.

**'Argentina 1985'**  
Igandea 6: 19:30.

### USURBIL

#### URBIL

**'Black Adam'**  
Ostirala 4:  
16:00, 18:00,  
19:00, 22:00.

**Larunbata 5:**  
16:00, 18:00,  
19:00, 22:00.

**Igandea 6:**  
16:00, 18:00,  
19:00, 22:00.

**'El cuarto pasajero'**  
Ostirala 4:  
16:35, 19:05,  
21:35.

**Larunbata 5:**  
16:35, 19:05,  
21:35.

**Igandea 6:**  
16:35, 19:05,  
21:35.

**'Lilo, mi amigo el cocodrilo'**  
Ostirala 4:  
16:50, 19:30.

**Larunbata 5:**  
16:50, 19:30.

**Igandea 6:**  
16:50, 19:30.

**'One Piece film: Red'**  
Ostirala 4: 17:00,  
19:45, 22:30.

**Larunbata 5:**  
17:00, 19:45,  
22:30.

**Igandea 6:** 17:00,  
19:45, 22:30.

**'13 exorcismos'**  
Ostirala 4: 16:50,  
19:20, 21:50.

**Larunbata 5:**  
16:50, 19:20,  
21:50.

**Igandea 6:** 16:50,  
19:20, 21:50.

**'Ámsterdam'**  
Ostirala 4: 22:10.

**Larunbata 5:**  
22:10.

**Igandea 6:** 22:10.

**'Hopper, el pollolobito'**  
Ostirala 4: 16:45.

**Larunbata 5:**  
16:45.

**Igandea 6:** 16:45.

**'No mires a los ojos'**  
Ostirala 4: 16:55,  
19:35, 22:15.

**Larunbata 5:**  
16:55, 19:35,  
22:15.

**Igandea 6:** 16:55,  
19:35, 22:15.

**'Los renglones torcidos de Dios'**  
Ostirala 4: 21:00.

**Larunbata 5:**  
21:00.

**Igandea 6:** 21:00.

**'Smile'**  
Ostirala 4: 19:10,  
21:55.

**Larunbata 5:**  
19:10, 21:55.

**Igandea 6:** 19:10,  
21:55.

egingo du. Sarrerek 6 euro balio dute eta Kutxabank Sarrerek atarian eros daitezke. Intza Alkain herritarra da antzezleetako bat. Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioa, 20:00etan.

## IGANDEA 13

### LASARTE-ORIA Zinema

*DC Supermaskoten liga* filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioa, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Zinema

*En los márgenes* filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute. Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioa, 19:30etan.

## OSTEGUNA 17

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Zurmailu Zurlanketa taldeak erakusketa irekiko du, ikasleek uretan zehar prestatutako lanekin. Hilaren 27ra arte jarriko dituzte ikusgai, igandearekin. Sarrera, doan. Antonio Mercero gunea. Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara, eta larunbatetik igandera, 12:00etatik 14:00etara.

## OSTIRALA 18

### LASARTE-ORIA Euskaraldia

Egun horretan hasiko den Euskaraldiaren aurkezpen ekitaldia egingo dute. Sarrerek doakoak dira. Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioa, 19:00etan.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA**  
**Lagun Onak CD - Ostadar SKT**  
Larunbata. 15:30. Garmendipe, Azpeitian.

**GORENGOEN MAILA**  
**Astigarragako Mundarro - Ostadar SKT**  
Larunbata. 16:00. Zarkumendegi, Astigarragan.

**ERREGIONAL 1. MAILA**  
**Ostadar SKT - Lazkao KE**  
Igandea. 13:40. Michelin kirol gunean.

**Úrnieta KE - Texas Lasartearra CF**  
Larunbata. 16:00. Úrnietan.

**OHOREZKO JUBENIL MAILA**  
**Ostadar SKT - Pasaia KE**  
Larunbata. 18:10. Michelin kirol gunean.

**JUBENIL 1. MAILA**  
**Texas Lasartearra CF - Zarautz KE C**  
Larunbata. 16:15. Michelin kirol gunean.

**Mundaiz SCD - Ostadar SKT B**  
Larunbata. 17:30. Martutene, Donostian.

**Ostadar SKT C - Intxurre KKE**  
Igandea. 11:45. Michelin kirol gunean.

### OHOREZKO KADETE MAILA

**Ostadar SKT - Trintxerpe CD**  
Igandea. 10:00. Michelin kirol gunean.

**KADETE 1. MAILA**  
**Ostadar SKT C - Arrupe Chaminade CD B**  
Larunbata. 14:40. Michelin kirol gunean.

**Euskalduna SD B - Ostadar SKT B**  
Larunbata. 12:15. Ubitarte, Andoainan.

**Usurbil FT B - Texas Lasartearra CF**  
Igandea. 12:00. Harane, Usurbilen.

**ARETO-FUTBOLA**  
**1. MAILA**  
**Eguzki Arkupe Rehab. - Lazkao Gaur Logistika KE**  
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

**2. MAILA**  
**Jaixkiareto Futbol Kluba - Eguzki ISU Lehoak**  
Ostirala. 20:20. Begoerrota kirol., Lezon.

**JUBENIL MAILA**  
**Eguzki Bodegas Ayasa - Lauburu KE Ibarra**  
Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

### INFANTIL MAILA

**Eguzki AF - Antiguoko KE**  
Larunbata. 13:30. Maialen Chourraut kirol.

**SASKIBALOA**  
**SENIOR 1. MAILA**  
**Saski Axular - Ostadar SKT**  
Larunbata. 18:00. Benta Berri kirol., Donostian.

**SENIOR 3. MAILA**  
**Erroibide AIB - Ostadar SKT**  
Larunbata. 20:00. Azken Portu kirol., Irunen.

**JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA**  
**Zast 2006 ZKE - Ostadar SKT**  
Larunbata. 16:00. Zubiko kirol., Oñatin.

**JUNIOR PARTAIDETZA**  
**Aloña Mendi KE - Ostadar SKT**  
Igandea. 16:00. Arizbatalde kirol., Zarautzen.

**KADETE ERRENDIMENDU ZILARRA**  
**Ostadar SKT - Goizper Group BKE**  
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

**KADETE PARTAIDETZA**  
**Ostadar SKT - Zast 2007 ZKE**  
Larunbata. 09:45. Maialen Chourraut kirol.

### PILOTA

**ESKUZ BANAKA, ALEBIN 1. MAILA**  
**Intza (Huizi) - Behar Zana**  
Larunbata. 16:15. (1. partida) Michelin kirol.

**Zazpi Iturri - Intza (Jauregi)**  
Ostirala. 19:15. Larrunarri, Amezketan.

**ESKUZ BANAKA, ALEBIN 2. MAILA**  
**Intza (Maiz) - Añorga**  
Larunbata. 16:15. (2. partida) Michelin kirol.

**Hernani - Intza (Iparragirre)**  
Igandea. 11:00. Udalekoa, Hernanin.

**BOLEIBOLA**  
**EUSKAL LIGA, SENIOR**  
**Ostadar SKT - Arizmendi**  
Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol.

**EUSKAL LIGA, SENIOR 2. MAILA**  
**Ostadar SKT - Gr. Eleyco Udapa Jatorkide**  
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

**JUBENILA**  
**Harresi 2 - Ostadar SKT**  
Igandea. 14:00. Hondartz kirol., Hondarribian.

**KADETEA**  
**Ostadar SKT B - Arizmendi D**

Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

**Ostadar SKT A - Fortuna 1**  
Larunbata. 11:00. Maialen Chourraut kirol.

**ERRUGBIA**  
**EUSKAL LIGA**  
**Nerbioi UBR - Gesalaga Okelan**  
**Zarautz Beltzak RT**  
Larunbata. 17:30. Lokatza kirol., Bilbon.

**14 URTEZ AZPIKOA, SEVEN**  
**Zarautz Beltzak RTren gaztetxoek**  
**errugby zazpiko topaketa dute.**  
Igandea. 10:30. Landare, Hernani.

**IGERIKETA**  
**NEGUKO LIGA**  
**Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutuek**  
**Neguko Ligako 2. jardunaldia**  
**jokatuko dute.**  
Larunbata. 15:00. Maialen Chourraut kirol.

**LASTERKETAK**  
**NAZIOARTEKO KROSA**  
**Lasarte-Oriako atletek 66. Nazioarteko**  
**Krosean parte hartuko dute.**  
Igandea. 10:10. Hipodromo, Donostian.



# LUIS CAR

## autobusak

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

Uzturre plaza, 1 LASARTE-ORIA • Tel./Faxa: 943-36 63 16 • Mugikorra: 629 46 18 97 • [luisarbus62@hotmail.com](mailto:luisarbus62@hotmail.com)

ERREZITALDI MUTANTEA **Frankenstein agurgarria (Petti eta Ana Galarraga)**

azarok 11, **OSTIRALA**, 20:00 Sutegi

**noaua**



Usurbilgo Udala

BAKARRIZKETA **Magma Mia. Beatriz Egizabal**

azarok 13, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi

FILM EMANALDIA **Black is Beltza II. Ainhoa**

azarok 18, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi

ANTZERKIA **Zeozertan dabil baina ez dakit zertan**

Metrokoadroka kolektiboa  
azarok 19, **LARUNBATA**, 20:00 Sutegi

Sarrerak: alde zuzenetik salgai [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.

Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noauako egoitzan.

**NOAUA!KO KULTURALDIA 2022** **USURBIL**  
**AZAROA**

